



Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxa 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN OROITIDAZKIA

IFK/C
IF
P2007
400A/
TEE/R
EL
01200
697
8625n
II2005
-06

2015

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	2
2. Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren epaitzen berri zabaltzea	3
3. Alde pertsonalak eta lan karga.....	7
4. Alde materialak eta informatikoak	9
5. Aurkeztutako erreklamazioak	10
6. Ebatzitako erreklamazioak.....	11
7. Ebazteke diren erreklamazioak	13
8. Epaitzak zein aldetarantz eman diren	14
9. Auzitegiaren irizpideak.....	18
10. Aurkeztutako gatazkei buruzko iruzkinak.....	18
11. Udal Auzitegi Ekonomiko Administrazioak konparatuz eginiko azterketa.....	19
12. Eskatutako irizpenak	22
13. Ondorioak.....	23

1. SARRERA

Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboa errekurtsogileen eskubideak era eraginkorren babesteko printzipioaren adierazpena da, haren funtzionamenduaren independentziak ematen duen bermeagatik. Hala dago jasota bi dokumentutan: 57/2003 Legeko (2003ko abenduaren 16koa, Tokiko Gobernuaren eraberritzeko neurri buruzkoa) zioen azalpenean eta Erreklamazio Ekonomiko Administratiboaren Ebazteko Araudian.

Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboak urtero aurkezten die memoria Udalbatzako kide guztiei. Memoria horretan aurreko ekitaldian egindako jardueren berri ematen da.

Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren jarduerak biltzen dituen memoria Udalean aurkeztuko da, eta 2015. urtean egindako lanaren erregistroa jaso du.

2015eko abenduaren 31n idatzitako memorian 2015. urtean egindako lanari buruzko informazioa jaso da eta azken lau urte hauetako hainbat alderdik izan duten bilakaera alderatzeko grafikoak ere sartu dira, hala nola: 2012-2015 epean emandako epaitzek dakarten erabakiak, eta erreklamazioak izapidetzeak eta ebazpenak egiteak dakarren lan-karga.

Finantza Zuzendaritzako Lege Zerbitzuaren Buruaren postua hutsik izan da 2015eko zenbait hilabetetan. Funtzionario hari dagokio Epaitegiaren Idazkaritza eta, ondorioz, asko igarri zion organoren jardunak haren falta aldiari. Dezenteko atzerapena sortu zen, baina 2016ko martxoan bete zen hutsik geratu zen postu hura eta ari da egoera bere onera etortzen. . Jasotako grafikoetan ikus daitekeenez, 2015an bilakaera positiboa izan da; izan ere, eta gero ikusiko dugun bezala, erreklamazio asko ebatzi dira. Hala erakusten dute *Análisis de*

litigiosidad y resultados prácticos de la actuación de los Tribunales Económico Administrativos Municipales txosteneko datuek. Txosten hori Bilboko Auzitegi Ekonomiko Administratiboko kide batek aurkeztu zuen, eta aipatutako datuak sartu dira, Donostiako Udalak haien berri izan dezan.

Auzitegiak, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak eta Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Donostiako Udaleko Araudiak xedatutakoari jarraituz, bere dituen eginkizunak gauzatzeko egin duen lana aztertu da. Funtsean, honako hauek oinarri dituzten erreklamazioak ezagutzeari eta ebazteari jarri zaio arreta batez ere: kudeaketako egintzak, likidaziokoak, zerga-bilketakoak eta zerga-ikuskaritzakoak; baita udalaren eskumeneko zuzenbide publikoko sarreraren nahitaezko zerga-bilketakoak (bereziki Udal zehapenak jartzen dira, halakoetan) eta zerga-ordenantzen Proiektuari buruzko txostenekoak.

2. DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN EPAITZEN BERRI ZABALTZEA

Zergen arloko berraztertze errekurtsoak ezesteko eman diren epaitzei dagokienez, zerga mota bakoitzean eman diren epaitzen berri eman da. Haien espezifikotasunaren arabera aukeratu dira epaitzak.

Orobat, eta interesdunek jakin dezaten, auzitegiaren epaitzek dakarten erabakia udalaren webgunean zabaltzeko asmoa dago. Erabaki horiek doktrina izango dira, gero.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga

93. epaitza, gaitzestekoa: subjektu pasiboari dagokio etxebizitza hutsei buruzko programetan sartutako alokairuko etxebizitzetara ematen zaizkien hobariak

eskatzea, eta Udala ez dago behartuta eskaera-eguna baino lehenagotik haiek aitortzera.

94. epaitza, onartzekoa: arrazoizko baldintza ekonomikoetan saltzea edo alokatzea galarazten duten eraikuntza nahiz ekonomia arloko baldintzak balioesteko txostena egitea udal teknikariei dagokie. Espedientean ez da udal txostenik ageri.

190. epaitza, alde onartzekoa: jarduerak atzera eraman behar dira, finka saldu edo alokatzea galarazten duten eraikuntza edo ekonomia arloko baldintzak ematen diren argitzeko udal teknikariek txostena egin zuten momentura.

191. epaitza, gaitzestekoa: ez da egiaztatu etxebizitzak udako bizitokitzat hartua izateko baldintzak betetzen dituenik.

281. epaitza, onartzekoa: gainordaina ordaintzetik salbuetsita dagoela onartzen da, bi urte baino gehiago pasa ez direlako oinordetzagatik eskuratu zenetik.

282. epaitza, gaitzestekoa: kontsumoak ez dira nahikoak udako bizitokitzat hartzeko.

283. epaitza, gaitzestekoa: ondasun higiezina ez dago altan inongo erregistro publikotan jarduera baterako erabiltzen den lokal gisa eta, hortaz, gainordaina ordaindu beharreko ondasun higiezintzat jotzen da.

284. epaitza, gaitzestekoa: Bi arrazoi hauengatik ezarri zitzaion finkari gainordaina: ez zelako egiaztatu ohiko etxebizitza zenik, batetik, eta aurkeztutako kontsumoak gutxi direlako udako bizitokitzat hartzeko, bestetik.

285. epaitza, onartzekoa: egiaztatu da erroldatuta dagoela eta ur eta argindar kontsumoak nahikoak direla; hortaz, gainordaina ez da aplikatu behar.

286. epaitza, gaitzestekoa: kontsumoak ez dira nahikoak udako bizitokitzat hartzeko, eta egiaztatu da gainordaina ordaindu beharreko ondasun higiezinak direla.

287. epaitza, onartzekoa: Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren gainordaina ordaintzetik salbuetsita dagoela aitortzen zaio, etxebizitzan jarduera profesional bat giten delako eta alokairu kontratua aurkeztu dutelako.

392. epaitza, onartzekoa: Ohiko bizileku ez badira ere, gainordaina ordaintzetik salbuetsita egongo dira bizileku erabilerako ondasun higiezinak, *baldin eta beren titularra beste etxebizitza batera aldatu beharrean bada mendekotasun egoeran egoteagatik* (kasu honetan, titularrak %57eko mendekotasuna egiaztatu du eta senitarteko batzuekin bizi da).

394. epaitza, gaitzestekoa: premiamendu-probidentzia ezeztatzeko tasatutako motiboetako bat ere ez da eman.

488. epaitza: onartezina, garaiz kanpoko delako.

489. epaitza: onartezina, garaiz kanpoko delako.

588. epaitza, gaitzestekoa: ez da onartzen 2011, 2012, 2013 eta 2014. urteetako ekitaldietan ordaindutako OHZren ordainagiriak itzultzeko eskaera, ez baita egiaztatu epealdi bakoitzean errekurtsioak aurkeztu direnik eta, hortaz, ordainagiri irmo eta onartutzat jo behar dira.

589. epaitza, gaitzestekoa: gainordaina ordaindu beharra sortu zenean, finka ez zen interesatuen ohiko bizitokia eta kontsumoak ez dira nahikoak jendea bizi den etxetzat jotzeko.

782. epaitza, gaitzestekoa: katastro balioaren aldaketa 2015eko ordainagiriari aplikatu behar zaio. Ez da itzulketa partziala egin behar aurreko ekitaldietako ordainagiriengatik.

Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga

391. epaitza, gaitzestekoa: ez da alegatu inolako motiborik enbargo-eginbidea legez ezeztatzeko biderik ematen duenik.

487. epaitza, gaitzestekoa: erreklamaziogileak ez du likidazioaren kontrako alegaziorik aurkeztu, bakarrik eskatzen du likidazioa eteteko horri lotutako auzi laburtua ebatzi arte. Erreklamaziogileak ez du zuzendu eteteko eskabidea.

Ekonomia Jardueren gaineko Zerga

778. epaitza, onartzekoa: erreklamaziogileak egiaztatu du bere sarrerak ez direla 2.000.000€ baino gehiago.

Gainbalioaren gaineko Zerga

390. epaitza, gaitzestekoa: likidazioak salerosketari dagozkio eta eskrituran ageri diren portzentaien arabera egiten dira.

393. epaitza, gaitzestekoa: amaren oinordetzagatik eskuratutako finkak eskualdatzean izandako partaidetza baino ez da likidatu; aitari zegokion zatia preskribatuta zegoela jo zen eta ez zen likidatu.

389. epaitza, onartezina: likidazio irmo eta onartuen kontra aurkeztu duelako errekurtsua.

490. epaitza, onartzekoa: Egoitza Santuarekiko Akordioa aplikatzekoa. Sarrerak Fundazioaren xedeetarako erabiltzen dira.

783. epaitza, gaitzestekoa: jasotzeko eskubidea dela-eta zerga ordaindu behar da eta amaren oinordetzagatik eskualdatu da. Katastroan eta OHZren erroldan alta eman izan da, finkaren gainean jabekidetasunaren %1 ezarrita.

Jabaria Okupatzeagatiko Tasa

395/2015 epaitza, onartzekoa: ez da egiaztatu likidazioen arrazoia izan zen okupazioa egin denik.

Ur eta Zabor Tasa

280/2015 epaitza, gaitzestekoa: ur ordainagirien fakturazioa Barneko Ur Instalazioen Araudiko 79. artikuluan ezarritakoarekin bat egiten da, hau da, aurreko kontsumo irakurri gabeak fakturatzen dira, beti ere ur horniketa egin bada.

Garabiaren Tasa

587. epaitza, ezestekoa: Ez da onartzen garabiaren tasa itzultzeko eskaera. Egiaztatu da arau-haustea egin zela eta garabiaren tasaren zerga-egitatea gauzatu zela; besterik da trafikoko zigorra prozedura arrazoiengatik baliogabetzea ala ez.

779. epaitza, ezestekoa: Ez da onartzen garabiaren tasa itzultzeko eskaera. Egiaztatu da arau-haustea egin zela eta garabiaren tasaren zerga-egitatea gauzatu zela; besterik da trafikoko zigorra prozedura arrazoiengatik baliogabetzea ala ez.

3. ALDE PERTSONALAK ETA LAN KARGA


Auzitegiko kideak Udaletik kanpokoak eta independenteak dira: Javier Herrero Aparicio, auzitegiko buru; eta Sofía Arana Landin eta Juan Santos Lopez Anton, auzitegiko kide soil. Beraz, argi dago auzitegiak funtzionamendu independentea duela.


Auzitegiko Idazkaritzari atxikitako langile funtzionarioak direla eta, Ondare eta kontratazio Zerbitzuan lan egiten duten funtzionario hauek dira: administrari bat, lanaldi osoan, monitorizatutako espedienteen arduraduna, lanaldi erdian, eta Zerbitzu burua (Auzitegiko idazkaria).

Zerbitzuburuak ondare eta kontratazio gaietan jarduten duenez, Epaimahaiarekiko bilerak hilerokoak dira orain.

Auzitegiaren lan-karga auzitegiko idazkaritzak darama. Urte hauetako guztietako maila bertsuan dirau lanak. Izan ere, lan propioak ez ezik (erreklamazioak izapidetzea, adibidez), epaitza guztiak idatzi ere egiten dira, baita zerga-ordenantzak aldatzeko proiektuei buruzko txostenak ere. Hileroko saio bakoitzerako 90 epaitza prestatzen dira, Epaimahaikide bakoitzak 30, zehapenen betearazte prozedurei buruzkoak eta, gainera, zergen inguruan hilabetean egindako erreklamazioei buruzkoak, oro har hiru zerga epaitza hilero.

Donostiako erreklamazio ekonomiko administratiboak ebazteko araudiaren 36. artikulua sei hilabeteko gehieneko epea finkatu du erreklamazioak ebazteko, eta indarrean dagoen Zergen Foru Arau Orokorrak prozedura horretarako gehienez urtebeteko epea ezarri du.





4. ALDE MATERIALAK ETA INFORMATIKOAK

Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren egoitzak Udaletxean jarraitzen du, eta bertan egiten dira hamabostean behingo bilerak.

Auzitegiko kideek ordenagailutik eskura ditzakete zirkulazioko zehapenen erreklamazioen espediente osoak.

Aurka egiteko bide hau erabili nahi dutenek paperean aurkeztu behar dituzte erreklamazioak, arautegiko 26.3 artikuluan zehazturikoari jarraituz; halaxe izango da, harik eta informatikako eta informazioko baliabide egokiak garatzen diren arte (erreklamazio ekonomiko administratiboak bide telematikoz aurkezteari buruz Zergen Lege Orokorra garatzeko emandako EHA/2784/2009 Aginduari men eginez). Ordura arte, erreklamazioak paperean

aurkezteko prozedura mantenduko da, arautegiko 26.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta Isun Zerbitzuak egingo ditu espedienteak.

Auzitegiari buruz udal webgunean ageri den informazioari dagokionez, honako hauxe da: erreklamazioak egiteko jarraibideak, erreklamazioetan aplikatu beharreko arautegia, eta urtez urteko oroitidazkiak.

5. AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOAK

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 137.1.a) artikuluan eta Donostiako Udaleko Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Arautegiko 1. artikuluan ezarrita dagoenez, auzitegi honi dagokio «*udal eskumenekoak diren zuzenbide publikoko zergen eta sarreraren kudeaketa, kitapen, bilketa eta ikuskapeneko egintzen gaineko erreklamazioez arduratzea eta horiek erabakitzea*».

Administrazioarekiko diru-erreklamazio horien garrantzia, honetan datza: interesatuek gero bide judizialera iristeko behar duten tresna dela.

2015ean, Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboan, ondoren zehaztuko ditugun erreklamazio hauek sartu dira. Kopuruaren, erreklamaturako kontzeptuen eta aurkezte-dataren arabera sailkatu ditugu.

2015ean aurkeztutako erreklamazioak	
Zergak	56
Zehapenetako bilketa	430
Guztira	486

Zergak	
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	24
Ekonomia Jardueren gaineko Zerga	2
Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko Zerga	2
Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga	3
Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga	15
Zerbitzu-Tasa	5
Baimenen Tasa	1
Jabariaren tasa	3
TAO tasa	1
Guztira	56

Zehapenetako bilketa	
Zirkulazioko zehapenak	428
Gizabideko zehapenak	1
Ingurumeneko zehapena	1
Guztira	430

6. EBATZITAKO ERREKLAMAZIOAK

Alde horretatik, zergen arloko erreklamazioak ebaztearen azterketa espezifikoa, auzitegiak eutsi egiten dio sortu zenetik —2005eko ekainetik— izandako irizpideari, hots, zerga-egitatei buruz eta zirkulazioko zehapenak biltzeko prozedurari ez dagokion eskubide publikoko edozein diru-sarrerari buruz eginiko erreklamazioak berehala ebazteko irizpideari.


Erreklamazio horiek berehala ebazten dira; eta zirkulazioko zehapenetako nahitaezko diru-bilketako prozedurei dagozkienak, iritsitako ordenari jarraituz izapidetzen dira, ordena hori baita legez errespetatu beharrekoa, prozedura horiek ebazteko orduan.

Zerga gaietako berehalakotasun hori egiaztatu da: 2015ean 56 zerga erreklamazio aurkeztu ziren eta 31 epai eman ziren. Epaietatik 4 aurreko urtetik ebatzteke zeuden eta abenduaren 31n 29 erreklamazio geratzen ziren ebatzteke, hilabete horren amaieran aurkeztuak.

Eta estatistika egitean auzitegiak dituen zortzi urte eta erdiko aldi osoaren ikuspegia hartzen badugu, aurkeztutako 10.663 erreklamazioetatik, 2015eko abenduaren 31n, aurkeztutako erreklamazioen %89,42 zegoen ebatzita.

1.128 erreklamazio zeuden ebatzteke, hau da, aurkeztutako erreklamazioen %10,58.

IFK/C
IF
P2007
400A/
TEE/R
EL
01200
697
8625n
II2005
-06



Grafiko horretatik ondorioztatzen da Auzitegiaren lana beti izapidetze- eta ebatze-erritmo bertsuan egin dela.

Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiari kontu eskatutako Auzitegiaren epaitzekiko gatazkei dagokienez, honako datu hauek eman dira:

Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoetan ebatzitakoak

2005-2015

Epaitza baiesleak (Udal Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren erabakia baliogabetzen dutenak)	9
Zatika baietsitako epaitzak	6
Epaitza ezesleak (Udal Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren erabakia berresten dutenak)	22
Atzera eginak	5
Auziak prozesutik kanpo betetzea	5
EZ-ONARTUAK	2
Ebazteke direnak	10
Guztira	59


7. EBAZTEKE DIREN ERREKLAMAZIOAK

Urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte, 2.094 erreklamazio ziren ebaztekoak. Haietatik 1.608 ziren 2015. urtetik ebazteke zeuden erreklamazioak, eta 486 ziren 2015ean aurkeztutako erreklamazioak.

Erreklamazio horietatik, 966 erreklamazio ebatzi dira 2015ean, eta 2015ko abenduaren 31n, 1.128 erreklamazio daude ebazteko.

Guztizko 1.128 erreklamazio horietatik, 81 espediente zeuden Isun Zerbitzuak izapidetzeke (kudeaketa-organo horrek bidaltzen du espediente osoa auzitegira), eta 1.047 espediente zeuden izapidetuta eta auzitegiko idazkaritzari entregatuta, analizatzeko eta hartu beharreko ebazpena idazteko.

Auzitegia eratu zenetik 2015eko abenduaren 31 arte egindako lanaren zenbaketa osoa hartuta, denbora horretan aurkeztutako 10.663 erreklamazioetatik, 8.569 espediente ebatzi dira, hau da, erreklamazioen % 89,42k badu epaitza.



8. EPAITZAK ZEIN ALDE TARANTZ EMAN DIREN


Grafiko hauetan ageri da emandako epaitzak zein aldetarantz izan diren: baietsiak, zati batean baietsiak, ezetsiak eta onartezinak. Multzo horietako bakoitzaren kopurua zehaztu da.

	Ezestea	Baiestea	Zati bat baiestea	Onartezina	Guztira
Ekonomia Jardueren gaineko Zerga		1			1
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	10	5	1	2	18
Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko Zerga	2				2
Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga	3	1		1	5
Jabari publikoa		1			1
Zerbitzu Tasak	4				4
Guztira	19	8	1	3	31


Zehapenak kobratzeari dagozkion epaitzak zein aldetarantz eman diren			
	Premiamendua	Bahitura	Guztira
Baiestea	19	8	27
Zati bat baiestea	5	36	41
Ezestea	603	260	863
Onartezina	3	1	4
Guztira	630	305	935

Zirkulazioko zehapenen nahitaezko diru-bilketako prozedurako erreklamazioetan, ezestekoak dira erreklamazio gehienetako epaitzak.


IFK/C
IF
P2007
400A/
TEE/R
EL
01200
697
8625n
II2005
-06




Hurrengo grafikoetan, urte horietako epaitzen noranzkoen arteko aldeak bistaritzen dira.




IFK/C
IF
P2007
400A/
TEE/R
EL
01200
697
8625n
II2005
-06





IFK/C
IF
P2007
400A/
TEE/R
EL
01200
697
8625n
II2005
-06



9. AUZITEGIAREN IRIZPIDEAK

Xede berarekin aurkeztutako erreklamazioak ebatzean, auzitegiak, aurreko ebazpenetan adierazitako irizpideei lotzearen Konstituzio doktrinari jarraituz, ratio decidendi berbera erabili du, zuzenbideko oinarrietan zehaztuta. Eta zuzenbideko oinarri horiek erabiltzen jarraitzeko asmoa du, oraingoz, aurkezten zaizkion kasuetan egitateen edo zuzenbidearen funtsezko aldaketarik izan ezean; izan ere, zuzenbideko oinarri horiek zuzenbidearen arabekoak direla baiteritzogu.

10. AURKEZTUTAKO GATAZKEI BURUZKO IRUZKINAK


Auzitegi honetan aurkezten diren gatazkak, ez dira aurkezten interesdunek erabaki dutelako bide hori hartzea, berraztertzeke errekursoarekin Udalarengana jo beharrean; hala balitz, berraztertzeke errekursoak ebatzen dituzten udal-organoen erabakiak ordeztu dituen organo bihurtuko litzateke auzitegi hau. Baina ez da hala, zeren eta udal-administrazioarekiko diru erreklamazio guztiguztiak berraztertzeke errekurtsua ezetsi delarik egiten dira, direla zehapenak betearazteko prozedurenak, edo direla udal-zergenak.

Lan-kargak handia izaten jarraitzen du, izapidetzen diren zehapenak betearazteko prozeduretan.

Grafikoetatik ondorioztatzen da, zerga-erreklamazioetako gatazkei dagokienez, erreklamazioak udal-zerga guztiei buruzkoak izan direla: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga; Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga; Eraikinen gaineko Zerga; Ibilgailuen gaineko Zerga; Uraren Tasa, Zaborrak Biltzeagatik Tasa, Jabaria aldamiokin okupatzeagatik Tasa; eta Garabi Tasa.

Emandako epaitzen diru-ondorioek, urte hauetan guztietan, erreklamaturako zenbatekoen ezeste-maila bertsuan diraute.

	2012ko epaitzak	2013ko epaitzak	2014ko epaitzak	2015eko epaitzak
Erreklamatuak	909.318,87€	1.058.049,12 €	544.725,69 €	477.467,24 €
Baietsiak	87.704,90 €	212.536,74 €	117.464,01 €	21.501,30 €



11. UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAK KONPARATUZ EGINIKO AZTERKETA

Ondorengo informazioa eta ondorioak urtez urte egiten ditu Bilboko Auzitegi Ekonomiko Administratiboko kide batek, “*Análisis de litigiosidad y resultados prácticos de la actuación de los Tribunales Económico Administrativos Municipales*” izenburuko txostenean.

Ebazte-Tasak adierazten du erreklamazioak zein proportziotan ebazten diren, urtero, aurkeztu diren erreklamazioen aldean (urteko ebatziak / urteko sartuak).

Emaitza 100 baino handiagoa baldin bada, esan nahi du sartutakoak baino erreklamazio gehiago ebatzi direla; eta txikiagoa bada, sartutakoak baino gutxiago.

Eraginkortasun-Tasak adierazten du erreklamazioak zein proportziotan ebazten diren, erreklamazio guztien aldean (urteko ebatziak / urteko guztiak).

Emaitza 100 baino handiagoa baldin bada, esan nahi du urteko erreklamazio guztiak baino erreklamazio gehiago ebatzi direla; eta txikiagoa bada, erreklamazio guztiak baino gutxiago.

Ebazteke dagoenaren Tasak neurtzen du zenbat urte beharko liratekeen urte bukaeran ebazteke diren espedienteak ebazteko (abenduaren 31n ebazteke diren espedienteak / urteko ebatziak).

Ebazte-abiadurak neurtzen du zenbat urte behar diren espediente bat ebazteko (urteko guztiak / urteko ebatziak).

DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOKO ERREKLAMAZIOAK

	ERREKLAMAZIOAK	2015	2014	2013	2012
1	Urtarrilaren 1ean ebazteke	1.608	1.536	1.726	921
2	Urtean aurkeztuak	486	1.205	1.198	2.038
3	Urteko guztizkoa (1+2)	2.094	2.741	2.924	2.959
4	Urtean ebatziak	966	1.133	1.388	1.233
5	Abenduaren 31n ebazteke (3 -4)	1.128	1.608	1.536	1.726

DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN ANALISIA

Urtea	Ebazpena (%)	Eraginkort. (%)	Ebazteke dagoenaren Tasa	Abiadura
2012	60,50	41,67	1,40	2,40
2013	115,86	47,47	1,11	2,11
2014	94,02	41,34	1,42	2,42
2015	198,76	46,13	1,17	2,17

2013ko ZIFRAK KONPARATUZ EGINIKO AZTERKETA

2014	Ebazpena (%)	Eraginkort. (%)	Ebazteke dagoenaren Tasa	Ebazte-abiadura
Sevilla	110,13	25,29	2,95	3,95
Madril	134,77	57,65	0,73	1,73
Malaga	92,69	72,56	0,38	1,38
Donostia	94,02	41,34	1,42	2,42
Valentzia	126,53	69,90	0,43	1,43
Bartzelona	132,56	87,69	0,14	1,14
Las Palmas	32,62	19,35	4,17	5,17
Bilbo	109,52	66,67	0,50	1,50

Mila biztanleko urtean aurkeztutako erreklamazioen kopurua konparatzen da, dagokion urteko urtarrilaren 1ean udal bakoitzak duen biztanle kopurua hartuta, Espainiako Estatistika Erakundeak argitaratutako datuekin.

**AZTERKETA KONPARATUA:
erreklamazioak, 1.000 biztanleko**

	2014	2013	2012	2011
	Erreklam./mila biztanle	Erreklam./mila biztanle	Erreklam./mila biztanle	Erreklam./mila biztanle
Sevilla	5,34	7,36	9,31	9,74
Madril	2,06	2,74	3,11	17,55
Malaga	1,3	1,26	1,40	1,26
Donostia	6,47	6,42	10,93	5,21
Valentzia	0,98	1,33	0,71	0,84
Bartzelona	0,21	0,27	0,11	0,13
Las Palmas	1,96	1,13	0,61	0,86
Bilbo	1,57	3,86	3,10	3,47

IFK/C
IF
P2007
400A/
TEE/R
EL
01200
697
8625n
II2005
-06

12. ESKATUTAKO IRIZPENAK

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 137.1.b) artikuluan eta Donostiako Udaleko Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Arautegiko 1.1 artikuluan ezarrita dagoenez, auzitegi honi dagokio zerga-ordenantzen proiektuei buruz irizpenak ematea.

2015eko irailaren 3an, Ogasuneko eta Finantzetako zinegotzi ordezkariak zerga ordenantzen proiektuei buruzko irizpena eskatu zion Auzitegiari, 2016rako zerga ordenantzen aldaketa jasota.

Proposamenek zergapetze tasa edo zerga kuotak aldatzea dakarte, 2015eko ekitaldirako zerrendatzen diren zerga hauek direla eta:

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga; Ekonomia Jardueren gaineko Zerga, Eraikenen gaineko Zerga, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga,

Udalaren jabari publikoa okupatzeagatiko Tasak, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuak Udalaren Bide Publikoetan aparkatzeagatiko Tasak, Lokalak irekitzeko eta bertan jarduerak burutzeko ematen diren Lizentziei dagozkien Tasak, Estolderi zerbitzuari dagokion tasa, Zaborra biltzeko zerbitzua emateagatiko tasak, kaleak sailkatzea kategoriaren arabera.

Auzitegiak, 2015eko irailaren 10ean egindako bileran, eskatutako irizpenak eman zituen. Proposamenen aldeko irizpenak izan ziren.

13. ONDORIOAK

Azterketa honetatik nabari da auzitegi honek jarraitzen duela auzitegia ezartzearekin lortu nahi zen helburua betetzen: herritarren zerbitzura diharduen doako tresna izatea, zuzenbideko profesionalak esku hartzea eskatzen ez duena; eta Udalarentzako hobekuntza elementu bat izatea, eguneroko kudeaketa egitean ihes egiten dioten okerreari antzemanaz.

2015ean eginiko estatistiketan, bere horretan dirau datu honek: gatazka gai masibo izaten jarraitzen dute zirkulazioko zehapenekin eginiko betearazte-prozeduren erreklamazioek. Bestetik, Gizabideari buruzko Ordenantzako zehapenen aurkako erreklamazioak hasi dira.

2016rako, Ondare eta Kontratazio Zerbitzuren burua erretiratu ondoren, ustez, auzitegiko kide batzuk aldatuko bide dira: hala, Juan Santos jaunak karguari utzi eta Maite Amunarriz andreak hartuko du; bestalde, Sofia Arana kidea arduratu da Auzitegiko Idazkaritzaz bitarte honetan, eta, aurrerantzean Ondare eta Kontratazio Zerbitzuren buru berriaren ardura izango da.

Oraindik ere informatikako dema dugu, auzitegiko idazkaritzarako, prozeduraren izapideak informatizatzea, Donostiako Udaleko Administrazio Elektronikoari

Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administrazioa
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxe 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

buruzko Araudia eta azaroaren 6ko 1671/2009 Errege Dekretua (2007ko ekainaren 22koa, herritarrek zerbitzu publikoak bide elektronikoz erabiltzearena) onartu zirela eta.

Informatizatzea lortuz gero, hurrengo aldira iritsiko ginateke: interesadunek baliabide informatikoak erabili ahal izango lituzkete, erreklamazioak aurkezteko, eta auzitegiko idazkaritzak sistema horren bidez jakinarazi ahal izango lituzke izapide, ebazpen eta epaitzak.

Donostia, 2016ko maiatzaren 9a.

Auzitegiko idazkaria

Auzitegiko lehendakaria

Sin.: Nekane Ruiz Larrea

Sin.: Javier Herrero Aparicio.